

Eztot ifiori galde-bearrik  
nundik ibilli zarean;  
Negar gorritzko tantoz dakustaz  
zure oinkadak bidean.

Iñoiz aseko ez dozun garrak  
kizkaltzen dautzu barnean;  
Ta zure naikun oro amiltzen  
ametsak legez, utsera!

Bizi-bidea lili-larrosaz  
baratza yatzun iduri;  
Biotza zorrotz ziztatzten daben  
arantzak daurkizuz soilki...!

Barnean iñoiz ilgo etxatzun  
zerbait ba-dozu miñetan,  
Lurrezko bitxutxa auskor batean  
altxorra legez, gordeta.

Baiña baita be zeure jausitzan  
zio dan gorputz astuna;  
Bustin-zatia danez lurrera  
beti makurrik yatzuna.



**“NUNDIK ZATOZAN, NORA  
[ZOAZAN...?  
ETZARA LUDI ONTAKO!  
BIDAZTI ZARA EMEN BAKA-  
[BRIK;  
ABERRIA GOIAN DAGO!”**

**ETA ILLUNTZEKO BAKIAN  
NORBAITEK DARRAI KAN-  
[TARI:  
“DANA EMON BIAH YAKO  
MAITE DAN AZKATASUNA-  
[RI”.**

# ABERRI- TIK DEIKA

Nundik zatozan, nora zoazan...?  
etzara ludi ontako!  
BIDAZTI zara emen bakarrik;  
Aberria goian dago.  
Jainko-arnasa baita gogoan  
iñoiz etxatzu itzuliko;  
Bustin-zati bat gorputza baita,  
auts-laster yatzu biurko.  
Bitartean zu, BIDAZTI guren,  
etsaien aurka guduan;  
Betirauneko saria lörtzen  
naigabez zagoz munduan.  
Beti gorantza nai dau gogoak;  
lurrera makur gorputza.  
Bion arteko guda ondoren  
nok lortu ete garaitza?  
(GERRIKA-ren  
“Atzerri-bidaztia”-tiko bertsoak).

# ANAITASUNA

X Urtea N.º III  
Dep. Legal SS. 1092-1959  
Suplemento de la hoja  
Anaitasuna de Guipúzcoa  
MARTIA (3) 1964

*Gaurko egunotan neska-mutillak dirala-ta asko idazten da, bear bada larregi. Dana dala-ta be, askotan libru orreik irakurriagaz baiño neska-mutillak, eurak, bala besteeiz zer pentzetan daben jakitea askozaz be interesanteagoa izaten da, ze, jakiña, euron iritxi orreik biotzaren parte sakonenaretik urten deutseezanak dira-ta.*

Gaurko mutillak, neskak zintzotasun-bage, erresponsabilidade-bage, independente ta emakumetasun sentidu gitxi daukela, sarritan esaten dabe.

Ta bear bada, askotan arrazoiagaz, ze neskatil askok, euren andrazkotasunaren dignidadea ia alde batean itxi-ta, gizontasuna lortu narian dabizela esan leiteke. Ezta, barriz, fenomenu kaltegarri au gure artekoa bakarrik. Europa guztian berdin pasetan ei da-ta. Baiña, alan da be, benetan lotzagarria da, ba, nor elitzake lotzatuko bere nor-tasun edo personalidadea galtzeagaz?

Dotore jantzitea ederto dago; baiña jazkera askok ete dabe ba edonoren dignidadea oinpean jartzen? Neskatilla bat, ama izatera deitua dagoan ezkerro, emetasuntzara baiño askozaz be gorago deitua dago; ta askotan, moda ta moda barik, amatasunaren ordeiz emetasuna agertzen dau.

Mutillak, barriz, neskak diñoenez, egoistak, zintzotasun, karakter ta personalidade-bagekoak ei dira.

Andrazkoak, izatez, laguntasuna derrigor bear dau; orduan ba, bere onduan benetako gizon bat, gizontasunari konbeni jakozan kualidadez betea, gura dau, ez askotan, ta lotzagarria da, ikusten diran gizonetzko karakter indarge bat.

Gizontasunaren kualidade bat, sendo ekiten, baita edozelako okerak etorri, jarraitzea da. Zoritzarrez, gaurko egunotan, gizon askok oker txikienari aurrez gogor eleuzkie egingo. Ta alako gazteak, ez-kondutakoan, zelako laguntza emaztearentzat izango?

Batzuri te besteeri, alkarren arteko tratuan, zintzotasuna, askotan, ez beti, falta jake. Zintzotasun au, barriz, bear-bearrezkoa dabe; bestela, alkar naiko engañatu ostean ezkontzen badira, egunen batean, bata edo besteak ezkutatu ebezan gauzak, agertuko dira, ta orduan, lenego aserre apurrak, gero konfiantza galtzea, ta azkenez, bear bada, alkar ikusi eziña; edo beintzat, —ta geiago ezpada, zubertea galanta—, desengaño aundi bat.

Orduan ba, gazteok, zeuon artean beti zintzo jokatu, bestela, geiago ezpada be, mundu onetako zoriona galdu zeinke-ta!

---

# Sierra Leonatik

Auxe da bostgarren urtea Freetownera gatozana. Esteban Uria, Galarrenako patroya, izan zan portu onetan lenengo sartu zana. Berak deskubritu eban portu au

Euskaldunentzat, eta bera asi zan Amerikanoeri gure arraiña bertan saltzen. Des-kubrimentu onek bentaja asko ekarri eutsen arraintzaleeri. Arrezkero, oso osorik saltzen dabe arraiña. Amaitu da betiko, atunari tripak kentzea. Eta prezioa, lengoa baiño ohea da: oraiñarte eurak dira, Amerikanoak, preziorik altuena emoten dabenak.

Orrezaz gaiñera, portu eder bat egin dabe gure bar-kuentzat: moilla barriak, konjelaziño fabrikea, edur fabrikea ta abar. Errezpide asko arraintzaleentzat. Prezio pizka bat obeagaz beste konpradore batzuk iñoiz agertuko balira-bere, arraintzale asko Freetownera etorriko litzakez seguru seguritik, bertan dagozan beste bentaja aundiakaitik. Auxe esan eustan Bermeoko patroibatek.



### AURTENGO ARRAINTZA ORGANIZAZIÑO

Portua bera, igazko legez dago. Edur fabrikea, bardin bardin. Egunero egiten dan edurra asko izanarren, ez da naikoa barku guztientzat. Ori dala-ta, barku bakotxa ezin daiteke iru bidar segiduan bertan sartu: mare bat Abidjaneko portuan egin bear dau, eta beste bi Freetownekoan, edo bi an eta bat emen.

Abidjan guztiz asago dago emendik, guztiz urrun. Lau eguneko bidea. Beste aldetik, emengo itxasoak arraintzan ibilteko gatak dira. Gure arraintzaleak ez ditue oraindiño ondo ezagututen. Nabegaziñoko kartak ez dira konpletuak. Zelan jakin olan, non dagozan baixak, non korrontak, non ur meiak? Beti ibilli bear sondearen pentzura. Eta aparatu orrek aberiaren bat badauka, orduan zer? Eskuko sondeagaz ibilli bear, beti bildur, beti artekadu.

Ori dala-ta, barkuak ez dabe bakarrik ibilli gura: peligruak ebiteko, alkarrerri lagunduteko eta danon artean arraiña errezago joteko. Orrexegaitik, aurtin biña ta irunako grupuetan etorri dira danak. Ondo pentsatua.

Aberiak konponduteko, iru mekaniku etorri dira, bi bertan egoteko, eta bestea Abidjanen. Emengoak, taller polit bat dauke, portuan bertan, moillatik urre urre. Radiotekniku bi-bere etorri dira, barkuetako aparatuak arregletako. Eta arraintzako kontuak eroateko, errepresentante bi, bat bertorako, eta bestea Abidjanerako.

Orrezaz gaiñera, arraintzaleak Erreglamentu bat dauke, multakaz ta guzti, euren arteko gauzak artez ibilli dai-



# AFRIKAKO BARRIAK

tezan. Eta Erreglamentu ori kunplidu eragiteko, bost gizoneko Komisio bat.

Emen, gure artean, beste barku bi dabilta, espainiol bat eta italiako bat, Marinero ta Maria Gloria, saregaz atuna atrapatu dabenak. Barku onek eurak eurretara, nekez atrapatu dabe ezer, beste untzi txiki batek mazi egiten ez badeute (1). Eta laguntziko orregaitik untzi txikiak arraintzaren eunekobeste aundia erosten dau. Baiña Erreglamentuak, beste gauza askoren artean, galerazo egiten deutse gure enbarkazioeri saredun barkueri lagundutea.

Gauzak olan izanik, gure enbarkazio batek lagundu egin eutson Marinerori etxadea egiten (2), Erreglamentuaren kontra. Komisioa enteratu zanean, Organizazioetik kanpora bota eban erruduna, eta beragaz batera bere grupuko beste barku biak. Nik ez diñot, Komisioaren erabakia zuzena ala okerra izan zanik. Nik, jazo zana bakarrik diñotsuet.

## ARRAINTZALEEN ETXEA

Geyenetan, Ospitala deituten deusagu. Igazkoa baiño askoz ohea da. Lengoa txikia zan, loya, bereratasun bakoa. Aurtengoa barriz, aundia, garbia, erosoa, ondo ornidua.

Kanpafiaren asikeran, Don Vicente Luzarraga medikua etorri zan Freetownera, Mutualidadearen izenean, gaixoen gauzak ondo ipinteko. Bere etorrerea, guztiz probetxugarria izan zan. Amerikanoakaz berba eginda gero, oraingo Ospital au lortu eban. Ogei bat egun egin zituan gure aitean. Naikoa denporea, Ospitala martxan ipinteko. Gero, Abidjanera joan zan. eta ango gauzak konpondu ostean, Espainira biurtu zan.

Don Vicente joan orduko, iru egun lenago, Madrilleko mediku bat etorri jakun Ospitalera, bertan denpora gutian geugaz egoteko. Bere izena, Don Fernando Pamos Prieto. Gizon gaztea, moduzkoa, beargiña, jasekoa.

Gaixoentzako iru gela aundi dagoz, bentiladore ta gutigaz. Orrezaz gaixera, beste kuartu txikitxu bat, kurak-eta egiteko. Aurten diziplina aundia dago Ospitalean, bertoko gaixoentzat eta egunean botikiñaren bila datozen arraintzaleentzat. Erreglamentu bat egin dogu, eta zearo kumpliten da. Medikamentu gitxitxu ekarri dogu; baiña utsuneri, medikuaren abillidadeak betetan dau.

Jan ondo egiten dogu eta igaz baiño merkeago. Orre-

(1) *Mazi egin*, arrain txikiak itxasora bota, atunari jaten emoteko; erderaz *macizar*.

(2) *Etxadea egin*, sarea itxasora bota, arraiña atrapateko.

xegaitik ekarri dogu Berreglamentuaren, iru mutil gaixoen, Jan, sala ederak irakurteko ta radio bat daukogu, butakakaz.

Domekan domekan bertan, goizeko amaiketarikun batzuntzat. Urte Berreglamentu jakuzan mezea enterratu Sierra Leonako iparraide italiako misioariakaz.

Orañarte, ez dogu gaixoen. Bermeoko bateri, herriko ospital nagusian. Berreglamentu itxasotik: koziñerua gorputzera. Beste batek, bista galdu dau: iru illa tsoen Bilbaon, eta ondo oman barku baten biurtu.

## Aita Imar

Osterantzeko gaixoen, riak, bona baltzak, belarri.

Gaurko, naikoa da. Urte Agur, lasterrarte.

## Leozo

## diños

## kue

## erak

## tzuna

koziñeru on bat. Berari  
laukoguz, igazkoak baiño  
egiten dogu; eta errebis-  
teko, beste sala elegante

meza santua Ospitalean  
entzat, eta erriko beste la-  
nean, iru monja mexikana  
Frantziskanak zirean, eta  
egiten dabe kolejio baten

asu gogorrik euki Ospita-  
operaziñoa egin deutsoe  
Lekeitiarra, erreta etorri  
eta ur irakiña jausi jakon  
Lekeitiarra, begi bateko  
operaziñoa egin eu-  
arrik etorri zan ona. Ale-  
errira.

## berbetan

izan dira: zaldarrak, zau-  
ak, agin ustelak eta abar.

esango deutsuet geyago.



Agertuko direan erantzunak ez dira artu Bizkaian; Toledo Probintziko Okaña errian izandakoak dira. Baiña izan leiteke Bizkaia-gaz zerikusi apur bat eukitzea. Okaña errian pasatu dana Bizkaian be zelan edo alan igarotzen da. Ze problema-tartean naazturik gabizan jakitea ondo etorriko jaku.

Ona emen gure problema oneek agertuko deuskuezan itaunkera ta erantzunak.

Zuen etxeetan bakoitzarentzat kuartu bat daukozue ala ez?

Euneko 92'k ezetza ipiñi eben.

Lartxo diñon erantzuna auxe. Ezetz erantzutea edo pobretasun ugari dagola bardin da. Bizimodu oneetatik urtetzea gura ez da arri-tzekoa. Penagarria da benetan etxe oneetan eroaten dan bizimodua, ta orregaitik ondo dago

urtetzea. Onela bizitzekotan, urten egin bear da ta kalean edo edonun alaitasun apur bat artu. Izan be, bizimodu onek Jaungoiko semeen dignidadea urratzen dau.

Ez pentsatu, barriz, kalera joatea soluziño bakarra danik. beste bat dago obeagoa ta erre-zagoa. Problema oneri ugaritasun ta aberastasu-n apur baten bitartez erremedioa ipiñi bear deusagu. Ta emen saiatu bear gara, urtero urtero baserria obetoago antolatzen. Baserrietan organizaziño ederrago bat gura geinke. Pozago biziko giñake.

Bigarren preguntea: Ezkontzeko zein dozu gurago, erriko bat ala kanpokoak?

Euneko 96'k kanpokoak gurago eben.

Aparteko erantzuna benetan. Ta emen gauza bat esan bearra dago: bizkaitarrari zorakeri

Emazteak ondo zaindu bear dau denpora gatx orreitan bere altzoan daroan umetxoa. ¿Zelan? Lenengoz, ezingo dau egin bier gogor askorik; zenbat eta bier gogor geiago, ainbat eta arrisku geiago ume-il bat izateko. Derrigorrezkoa da makiña bat bider entzun dozuen kontzejo, ori goguan artzea. Liburu eta errebista askoetan arkituko dozuez olako kontzejuak, eta zuek euren azpian jarri bear zarie zintzo-zintzo.

Bueno baiña... denpora guzti orretan ezingo da egin orduan gauza probetxukorik? —au izan leiteke, emazte maitea, zure pregunta bat—. Laster eta duda barik erantzungo deusut: —Probetxuzko gauza asko egin zeinkez, bai orixe orraitio! Esate baterako:

umebideko  
denporan



# Senar-emazteak

baleiteke zuk beste seme koskortuak izatea; ba orduan, aprobetxatu zeinkez denpora orreek zure semeak eduketan. Eta esan euri, zelan denpora gitxi barru beste "anaitxo" bat eukiko dabela. Izango dozuz orduan amaikatxo pregunta jaiotzako misterio orreengan. Zer egin zuk pregunta orreen aurrean? ¿Gorritu? ¿Bildurtu? Ez. Ezta pentza be. Zuk esan beti egia. Baiña ez-

taukazu zertarako esan bearrrik egi ori gordin-gordiñean. Modu askotan esan leiteke egi bat, modu orrekaitik egia izatea ez itxiñaz. Modu orreek bear-bearrezkoak dituzu. Baiña ez esan orraitio onelako guzur aundiak: "Mendian topa dogu", "kitanoak ekarri dabe" eta abar. Ume koskorak, olako preguntak egiten dabezanean zeozelan edo alelan kontu orreetako problemak planteatu

dabezala esan nai dau. Eta zuk, emaztea, gauza normal bat lez esplikaten ezpadeutsazu, zuretzako eta berantzako txarrago izango da. Umeak derrigor jakingo dau denpora asko edo gitxi barru zelan gertatuten diran "misterio" orreek. Baiña nundik jakingo dauz? Bere eskolako lagun edo beste gazte batzuetatik. Eta kostako da orraitio lagun orreek zuk esan deikiozun garbi eta normal esatea, bai orixe!

Eta senarrak ez ete dauko ezer egitekorik garai ontan? Ez dago dudarik, bier asko benetan! Emaztea garai onetan guztiz nerbio eta egonezinga ibiltzen da sarritan. Senarrak orduan konprenitu egin bear dau emaztearen situaziño ori. Iñoz baiño geiago bear dau orduan emazteak senarraren maitasuna eta onen aotik maite dabela entzutea. Senarrak lagundu beio emazteari bere eginkizun gogor eta astunetan. Ambiente on

bat jarri bear dau senarrak famili guztian, bere poztasuna eta umorea edonundik atearaz.

Ez litzake txarto egongo senarra emaztearen ondoan egotea bere ordua eldu jakonean. Senarrak bere aurrez-egoteaz asko bigundu leikez emaztearen min aundiak. Senarrak bere emaztea, ain min-aundietan ikusiaz, ez ete leuke gero geiago maitatuko? Baietz uste dot. Epel xamarra bazan lendik zuen maitasuna, suprimentu orren bitartez derrigor berotu bearo dau. Eta seguru asko, senarrak ainbeste suprimentu bere emaztean semetxo ori ekarteko ikusiaz, askoz geiago maitatuko dau gero seme ori. Ortarako, ba, senarra balientea izan bear da. Askokostaten jako senarrari emaztea orrelan ikustea, baiña suprimentu ori ordainduta geldituko da zuen alkar-amodioa ugaritua izango dalako.

(5'gn orrialdetik dator)


apur bat sartu jakula. Beti uste izaten dogu erbestekoa ohea dala. Au ikusteko, gauza bat gogoratzea besterik ez dago. Uer dala-ta pensatzen dogu kaxkarragoa dala domeka arratsaldeetan euskeraz egitea? Itxurazkoagoa ote da ez dakigun erdereza erabiltzea, dakigun euskera baiño? Au mania sartu jakuna!! Ona emen, ba, erremedioa eskatzen deuskun bestakatz bat.

**Irugarren itaunkera: Eskolaren falta sentiduten dozu ala ez?**

**Euneko 97'k geiago bear leikela diño.**

Jaungoikoak mundu onetan ipini gaitun ezker, baztar guztiak ikusi ta barri guztiak jakin bear dira. Gogo au azaldu eutsen gure lenengo gurasoeri: "Menderatu egizue lurra". Lur onen esakera, barriz, ez da gure baserriko lurra esan gura dauana bakarrik; askozaz be geiago esan gura dau. Ez da, ba, naikoa baserri kontuetan trebeak izatea. Nagusiagotarako sortuak izan gara. Jaungoikoa ezagutzeko ta maitatzeko, kristau bizitz pozgarria konprendidu ta bizitzeko, eta lurra menderatzeko. Onetarako jaiok gara. Onetarako ondo egongo litzake txikitatik edukaziño on baten

*bidea artutzea. Bide segurua ta gauza guziak aurkitzen dauana bera. Edukaziño on batek kristau obeak, gizon azkarragoak eta aberatsagoak egingo gaitu.*



# Paulo VI'ren

## katza

## JOC-ari

Azkenko Aita Santuen antzera, geuk be geure maitasun, onespén, ta konfiantza sentimenduak egiztatu gura deusguz J.O.C.-ko Mógimentu maiteari.

30 urte dira ia Mogimentu eder onen aurrerapena segitzen dogula, eta poz-sentimenduekaz eta Jainkoari eskerka, bere zabaltzea mundu guztian ikusi izan dogu, azken urte onetan.

Beti euki izan badoguz biotz barruan Gaztedi biergiñaren problemak, gaur daukoguz ifnoiz baiño sakonago Probidentziak ipini gaitun leku ontan. Eta bizi senti-tzen dogu Kristo-ren artaldearen zati ain inportantea dan onenganako Elizak daukon arduratasun amatarra.

Bere grazi ta egi aberastasunak gizon guztieri banatu dakioezela gura dau Elizak, baiña aparteko maitasunez eskeintzen deutsez bier-munduko biergiñeri. Euren jo-muga edo destinoaren jakifñaren gaiñean jarri gura dauz eta Jainkoaren semèri jagoke lez bizi daitezán erakutsi. Eta, ganera, ekonomi ta sozial gauzetako beren aspirazio bidezkoetan eutsi gura deutse Eleizak.

Kristiñau Gaztedi Biergiñak —J.O.C.— Elizaren gurari bero au berea egin dau, eta egiteetara eroateko tresna probidentziala izan da noski. Orregaitik ain zuzen, Aita Santuek eztabe dudarik euki bere oportunitatea ikusi ta ospatzeko. Agirian eta sarrri bedeinkatu ta txalotu egin dabe Mogimentu edukatzaile ta apostoliko andi ori. Zeren, Elizaren izenean mundu guztiko gaztedi biergiña batu ta Kristo-ri eskeintzeko anbizio santua gordetzen dau. J.O.C.-ek ez



ta praktikatu egiñaz.

Guk, ba, gure partez zera diñotsagu: jarrai daijala Kristo bier-mundura eroaten! Elizaren konfiantzaren merezigarri egin daben izakera benetakoetan zintzo ekin daijala! J.O.C.-ek bere kideeri damotsen formazioaren bitartez sozial gauzetan Aita Santuen ta Obispoen erakutsien ezagutzeaz, batuten diran organizazioak eragiten deuten egiteen bitartez, beti ta egunero gelago, mundu osoko lurralde guztietan gazte biergiñ guztien santutasun eta salbazioarako bidea izan daiteala, bierraren, erriaren ta Eliza Katolikoaren maitasunean bizi daizala erakutsiaz.

Aurretiaz, ba Goiko grazirik onenak eskatzen doguz J.O.C.-ek preparteta daukoan batzar batzuen alde: Erdi-Amerika-n urrrengo Kongresoak, 1964-ko bere "Rallye" europearra, 1965-ko bere Kontseju Mundiala.

### JOC-**EK** AITA SANTUEN KONFIANTZARI EZTEUTSO UTSIK EGIN IÑOIZ.

dautso Aita Santuen Konfiantzari utzik egin.

Eta —esatean poztu egiten gara— aparteko edukatzaile lez agertu da arraza ta kondizio guztietako mutil ta neska biergiñen serbiziara, euren bidez bizitzako euren problemen soluzio kristiñau ta gizakia agertu

Eta munduko jozista guztieri, konsiliario ukafiñeri ta batez-be, J.O.C.-aren fundatzaile agurgarri ta nekaitzari, Gure maitasunaren ezaugarri lez, Bedeinkazio Apostoliko aparteko bat bialduten deutsegu.

**Paulo VI-garzenak.**